

## Intxaurreondo

## Etorkizuneko zinegileen harrobia

Duela lau urte "Kamararen atzean" izeneko egitasmoa sortu zen Larrotxene kultur etxean. 6-16 urte bitarteko Neska-mutilei zuzendutako proiektu hau fruituak ematen hasia da. Izan ere, Larrotxenen egindako bi film labur saritu berri dituzte Greziako gazte-zine lehiaketan

**G**reziako gazte-zine lehiaketako epaimahaiak Larrotxenen egindako bi film labur saritu ditu: hamaika urte besterik ez dituen Nagua



Isabel Alba



Ahmed Taher-en "Doble dirección" eta Alberto Gastesi Jauregik zuzendutako "Tampantojo".

Isabel Alba da "Kamararen atzean" izeneko egitasmo honen sortzailea. Duela lau urte ekin zion proiektuari, eta oso pozik dago urteotan egindako lanarekin: "neska eta mutil gazteekin lan egitea ez da batera erraza, baina harro nago egindako aurrerapenaz".

Bi arlo nagusi bereizten di-

tu Isabel Albak egitasmoari buruz hitz egiterakoan: "6-9 urte bitarteko neska-mutilekin hasten gara lanean. Hauekin sormena lantzen da batik bat, eta bide batez telebistarekin kritikagoak izan daitezkeen nahi dugu. Aldiz, 9-10 urteko neska-mutilak urtebeteko ikastaroa egin eta gero kamararekin hasten dira".

## Sei film labur

Guztira, sei film labur egin

**Urtzi Alfaro euskarazko film laburra prestatzen ari da**

dituzte. Hauetako bi talde ekoizpenak izan dira, eta gaitzetzeko lauak bakarkako lanak. Orain arte film guztiak gazteleraz egin diren arren, euskarazko lehen film laburra prestatzen ari dira. Egileak Urtzi Alfaro izena du, eta gazte batek ikastetxe berri batera egokitzeko izango dituen gorabeherak kontatu behar ditu. Filma ekainean egitekoa den Intxaurreondoko bideo astean emango da.

Otsailaren 2an hasi eta ekainaren 8ra arte luzatuko da aurten "Kamararen atzean" ikastaroa. Sei eta hamabi urte bitarte badituzu eta zinea gustuko baduzu, hauxe duzu aukera. Izena emateko Larrotxene kultur etxera deitu behar da (943 291954).

**ALDAIA**  
taberna  
Ikatz kalea 8

**FEDERIKO**  
EGUNEZ ETA GAUEZ GIRORIK ONENA  
FERMIN KALBETON 27

**TTVN TTVN**  
TABERNA  
San Jeronimo 25

Parte Zaharreko martxarrik onena

**TABERNA**  
Loretxu  
Fermin Kalbeton 26  
Gozatzeko musikarik onena

**TABERNA**  
15  
konstituzio plaza

**ALXERRI**  
taberna  
Erregina Erregenta, 2 • DONOSTIA